

## PRENTSA-OHARRA • 2023KO URTARRILA

“Urrutiko irakaskuntza eta ikaskuntza digitala Covid-19aren ondoren - **Di2Learn**” proiektua Erasmus+ KA2 lankidetzaren estrategikoaren parte da. 2021eko apirilean jarri zen abian eta ikastetxeei Urrutiko Ikaskuntzarako Ekintza-plana garatzen laguntzea du helburu. Proiektuak ikastetxeen modernizazioa eta eraldaketa digitala ekarriko ditu, irakasleei trebakuntza emanez, dagoeneko dituzten gaitasunak hobetu eta berriak eskuratzeko aukeren bitartez. Aukera horiek garapen profesionaleko ikastaroen eskaintzan oinarritzen dira, irakasleei urrutiko irakaskuntza diseinatzen eta ematen laguntzeko, eta, aldi berean, ikasleei urrutiko ikaskuntzarekin aurrera egiten laguntzen diete.

Hirugarren *Intellectual Output*aren parte gisa, **Di2LEARN AKADEMIA BIRTUALA IRAKASLE- IKASLE-GURASOENTZAKO** garatu zen. Plataforma interaktiboa eta mugikorrenzako aplikazio bat da, eragile guztiei (irakasle-ikasle-guraso) F2F-tik Urrutiko ikaskuntzarako kalitatezko aldaketa egiten laguntzeko. Plataformak mapa interaktiborako tresna, lehen sorospenerako Di2Learn kutxa hirukoitza, e-Di2Learn Readiness tresna, e-Di2Learn Network eta aplikazio mugikorra ditu. Mugikorretarako aplikazioa parte-hartzaile guztiei programatutako motibazio-mezu eta/edo bideoekin laguntzeko erabil daiteke. Xehetasun gehiagorako, bisitatu webgunea: [Di2LEARN AKADEMIA BIRTUALA](#)

Gaur egun partzuergoa laugarren *Intellectual Output* lantzen ari da: IO4 - **Di2LEARN AKADEMIA FISIKO ETA BIRTUALA: Di2LEARN AHOLKULARI BERRIAK PRESTATZEA**.

IO4ren helburuak hauek dira:

- lehen **AHOLKULARIEN BILERA** antolatzea, Garapen Profesionaleko Ikastaroak
- **KANPAINA** diseinatu, garatu eta erabiltzea hezkuntza formalaren modernizazioaren eta eraldaketa digitalaren alde
- **URRUTIKO IKASKUNTZARAKO AKADEMIA**ren sustapena eta proiektuaren ustiapena bultzatzea herrialde bazkide bakoitzean eta **Di2LEARN AHOLKULARI-ENBAXADOREAK (IRAKASLE-IKASLE-GURASOAK)** trebatzea
- **ESTRATEGIA PAKETEA**k prestatzea hobekuntzara, transferigarritasun eta ustiapenerako

Proiektuen emaitzak estatu mailan probatuko dira herrialde bazkide bakoitzean, tokiko proiektuen akademiak sortuz, eta kanpaina nazionaleri esker sustatuko dira. Proiektuaren lana teoriatik praktikarako aldaketan oinarritzen da. Produktu guztiak, metodo pedagogikoak, jarraibideak, plataforma, tresnak eta ikastetxeei, irakasleei, ikasleei eta abar laguntzeko baliabideak aztertu, berrikusi eta probatu egingo dira.

Lehenik eta behin, **Di2LEARN AHOLKULARIENTZAKO TREBAKUNTZA** ikastaroaren parte gisa, bazkide guztiek hiru taldeen pilotatzea egin behar dute:

- irakasleak: garapen profesionalerako ikastaro bat antolatzea **Di2LEARN AHOLKULARI-ENBAXADORE** rola hartuko duten irakasle, ikastetxeko arduradun eta langileei laguntzeko. Haiek izango dute beste irakasle batzuk gidatzeko ardura, ikasleei urrutiko ikaskuntza eraginkor eta kalitatezkoa eskaintzeko
- ikasleak: 2 tailer ikasleekin (DBH eta Batxilergoa), **Di2LEARN AHOLKULARI-ENBAXADOREAK**
- gurasoak: 2 tailer gurasoekin, beste gurasoentzako **AHOLKULARI** bihurtzen laguntzeko.

Hurrengo urratsean, sustapen kanpainaren barruan, bazkide bakoitzak bere herrialdean egindako pilotatzeari buruzko 7 bideo garatuko dira, kanpainan zehar erabiliko direnak, joan den udan LTTA jardueretan prestatutako podcastekin batera.

**Xehetasun gehiago** proiektuaren webgunean eta proiektuaren sare sozialetan laster!

Di2Learn Partzuergoa honako hauek osatzen dute [SPOLECZNA AKADEMIA NAUK](#) (Koordinatzailea), [PCG](#), [EMPHASYS](#), [TXORIERRI](#), [STEP BY STEP](#), [EUROED](#) eta [EUROPEAN DIGITAL LEARNING NETWORK](#)



[www.di2learn.eu](http://www.di2learn.eu)



[di2learn.info@gmail.com](mailto:di2learn.info@gmail.com)



[@Di2learn2021](#)



[@di2learn](#)



Co-funded by the  
Erasmus+ Programme  
of the European Union

Proiektu hau Europako Batzordearen laguntzarekin finantzatu da. Komunikazio honek egilearen iritzia soilik islatzen ditu, eta Batzordea ez da izango bertako informazioari ematen zaion erabileraren erantzule. «Di2Learn - Distance-Digital Teaching and Learning in the Post-Covid-19 Era» Proiektuaren zenbakia: 2020-1-PL01-KA226-SCH-095530.